



HASTEAR DIRA **INAUTERIETAKO DOINUAK**

Tolosako Udal Musika Bandak eta Txistularien Bandak kontzertu berezia emango dute etzi lurreamendi egoitzan 2

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2009-02-05**

VII.URTEA 1.621.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Eszerrean, Villabonako kaleetan Jesusen Bihotza ikastolako ikasleak. Eskuinean, Iruran, ikastolako umeak, irakasleak eta gurasoak abesten. R.C.

MAKILKADEZ LAGUNDURIKO DOINUAK

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Kantari atera ziren atzo, makilak eskuetan, Agate Deunaren bezpera izaki, herritar ugari 5

Pintura zuzenean ikusteko aukera bihar, Zerkausian

TOLOSA XTRM artista ariko da margotzen; GKo Galerian ere erakusketa irekiko dute bihar 3

Glu Glu taldearen 'Handitan' antzezlanaren ikusgai Gurean

VILLABONA 17:00etan izango da emanaldia, igandea; 3-10 urteko haurrei zuzendua 6

Aho batez onartu dituzte aurtengo aurrekontuak

LEITZA 3.674.903 eurokoa izango da; Udaleko alderdi guztiek bozkatu dute alde 7

IKASTEN IKASTEKO
PREST!

ENPRESEKIN ELKARLANEAN
ARITZEKO PREST!

AURRETIK
JOATEKO PREST!

...eta gainera,
aukera gehiago.
**UNIBERTSITATEA
BIZITZEKO
PREST!**



PREST
m
**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

www.mondragon.edu/rest



Ezker-eskuin: Irazabalbeitia, Ezenarro eta Agirrezabal. e.e.

Parlamentuan, langileen ordezkari izan nahi du Aralarrek

Politika » Tolosaldeko egoera gertutik ezagutzeko asmoz, bisitan izan da Aintzane Ezenarro, Aralarko zerrendaburua.

ERREDAKZIOA

Aintzane Ezenarro Gipuzkoako Aralar alderdiaren zerrendaburua eskualdez eskualde dabil bakoitzak dituen gabeziak eta arazoak gertutik ezagutzeko asmoz. Herenegun Tolosara etorri zen, eta berearekin batera izan ziren, Iñaki Irazabalbeitia eta Antton Agirrezabalak Txepa, eskualdeko ordezkariak.

Aralarko kideek behin eta berriz adierazi zuten, beraien lehentasuna orain, krisia gizarteko sektore-rik ahulenen eta langileen bizkar gainean ez erortzea izango dela. Honenbestez, Aintzane Ezenarroren hitzetan, langileen bozeramaile izan nahi dute Aralarrekoak. Gaineratu zuten, langilegoaren interesa alde egingo dutela eta horretarako, hauen eskariak zuzenean ezagutzen ahalegin duko direla. Aipamena egin zuten lan ministroz emandato datuen inguruan. Hauen arabera, urtarrean, Gipuzkoan 3.000 langabe gehiago baitzeuden, iaz baino

%10ean igo da langabezia, eta egun, guztira, 28.700 pertsona dira lanik gabe daudenak.

Tolosaren arazoak

Irazabalbeitia Tolosak egun dituen arazoengatik mintzatu zen. Hasteko, «krisia eragiten ari zaio». Horren adibidetzat aipatu zuten Gorostidi enpresa. Honez gain, zoru industrialik ez izatea ere ahulezietako bat. Gainera, Irazabalbeitiaren hitzetan «Tolosan industria desagertzen ari da, eta hau beharrezkoa da eskualde guztietan». Ondoren, lehendabiziko sektorea izan zuen hizpide, «gero eta baserriak gutxiago daude. Arazo estrukturala dago hor batetik, eta lurrik onenak galtzen ari direnarena, bestetik». Etxebizitza alorrean ere, tasatuen sistema erabili beharrean, alokairu soziala bultzatu beharko litzatekeela uste dute.

Euskararen etorkizunarekin ere kezkatuta daude Aralarrekoak. Tolosak UEMAn sartu beharko lukeela aldarrikatzen dute, eta hizkuntza politika berezi bat garatu.

Herenegun agerraldian agertu zuten azken arazoa AHTrena izan zen. Honen inguruko informazio falta salatu zuten, eta gaineratu, probintzia mailako loturak indartu beharra daudela honen aurretik.

@ Etxabaida. Inauteriak gainean: hainbat herritan has-tear. Krisia dela eta, aldatuko al duzu moztorra egiteko modua? Alegia, beste urte batzuetako zer-bait erabiliko duzu, zaharren bat zertxobait aldatuko duzu? modu merkeago batean egiten ahalegin-duko zara? ala dena berria eroso-ko duzu? Sartu TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren web-gunean eta eman zure iritzia. Etxabaida honez gain, egun jendeari kezkatzen dioten beste hainbat gaien ingurukoak ere aurkitu ahal izango dituzu. Sartu eta idatzi pen-tsatzen duzuna.

www.tolosaldekohitza.info

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin beharra dago. Interesatuak deitu 657 23 00 11era edo 634 91 94 82ra.

LANA

■ **Bigigarbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromezurik gabe. Irene: 638 94 46 04 eta 695 70 82 71.



lazzo kontzertuaren une bat. HITZA

Etzi, Udal Musika Bandak eta Txistularienak lurreamendin joko dute

Kultura » Urteroko ohiturari jarraituz, Inauteriak gerturatzeko ari direnez, egoiliarak alaitzen izango dira.

ERREDAKZIOA

Tolosako lurreamendiko egoiliarrek bisita berezia jasoko dute aste-buru honetan. Izan ere, Tolosako Musika Bandakoek eta Txistulari Bandakoek urteroko kontzertua eskainiko du igandean, 11:30ean. Tolosako lurreamendiko egoitzan. Inauteriak gero eta gertuago diren honetan, adinekoak girtzen hasteko ekitaldi aproposa izango da hau. Kalderero, Donostiako Danborrada eta Inauterietako doinuak joko dituzte. Bestalde, urtero bezala, Bandak bere kide ohiei deialdia egiten die Inauteri kontzertu berezian parte hartzeko, hilaren 15ean. Horretarako, hilaren 10 eta 12ko entsegetara joatea eskatzen diete. 20:15ean, Udal Musika Eskolan izango dira hauek.



Astelehenean hasi ziren mobilizazioak egiten lurreamendiko langileak. I.T.

lurreamendi egoitzan soldaten parekidetza eskatzen dute

Ekonomia » Lan berdina egiteagatik gutxiago irabazten dutela salatzen, elkarretaratzea deitu dute Zu eta Biok-eko langileek.

ERREDAKZIOA

lurreamendi Zaharren Egoitzako langileek elkarretaratzea egingo dute «soldata eskala bikoitza» dagoela salatzen. ELA eta LAB sindikatuek babestu dute larunbateko ekimena. Triangulo plazan elkartuko dira 12:00etan *Negozia-zioa orain igual trabajo igual* lelopean.

lurreamendi Egoitza, Udal Erakunde da, eta bertan lan egiten duten langileek kategori berdinean soldata eskala bikoitza dute. Bata Udal langileek dutena da, eta bestea Zu ta Biok azipkontratutako enpresako zainzaileena da.

Hauek lutzutako datuen arabera, besteek baino 5.827,93 euro gutxiago kobratzen dituzte urtean. «Lan berdina eginaz desberdin kobratzea» ez dutela onartzen garbi utzi nahi dute. Hala, «diskriminazio» honen bikatu ahal izateko 2009ko hitzarmenean, besteak beste, parekidetza eskatzen dute.

Zu eta Biok-eko langileek Enpresako Lan Hitzarmena dute, eta 2009ko eskakizunak aurkeztu dituzte. Baina beraien esanetan, «lurreamendiko Batzorde Zuzendaritzakoek ez dute onartzen lan baldintzen negoziaketa eta Gipuzkoan eztabadietzen ari den hitzarmena bidali nahi dituzte», baina Zu eta Biok-ekoek hemen eta orain negoziatu nahi dute. Honen arrazoiak dira: Zu eta Biok-eko langileek Enpresako Hitzarmena dutela, eta «diskriminazioa, hemen bertan, lurreamendin ematen dela».



Pello askatzeko kantuan eskatu dute

POLITIKA » Aldarrikapenak, salaketak eta eskaerak egiteko modu ezberdinak daude, eta atzokoan, Lizardi elkartekoek kantua aurreratu zuten. Beste behin ere, Pello Odriozola preso tolosarra askatzeko eskatu

zuten. Atzo Agate Deunaren bezpera zela aprobetxatuz, eta elkarreko kideek kantuan ateratzeko ohitura zuteenez, elkarretaratzea egin beharrean abestea erabaki zuten. e.eziza

'XTRM' artistaren eskutik, artea zuzenean ikusi ahalko da bihar

Tolosa » Zerkausion ariko da 16:00etatik aurrera; GKo Galerian bere lanen erakusketa zabalduko dute bihar 20:00etan.

ERREDAKZIOA

Artea zuzenean ikusteko aukera izango da bihar Zerkausion, izan ere, GKo Galerian eskutik eta Tolosako Udaleko Gazteria sailaren laguntzarekin, 'XTRM' artista beasaindarra ariko da marrazten 16:00etatik aurrera.

Artista gazte honek jendearen aurrean pintatuko du, beraz, bihar arratsaldean. Hala, lan edo koadro hori amaitzen duenean GKo Galeriarra (Kale Nagusia, 4) emango du. Horrekin batera, bere hainbat lan aurkeztuko ditu, galerian bertan jarriko duten erakusketan. Erakusketa honen inaugurazioa ere bihar izango da, 20:00etan, eta martxoaren 4ra arte izango da ikusgai. Informazio gehiago topa daiteke erakusketa honen inguruan GKo Galeriarren webgunean (www.gko-gallery.com).

Galeriaren egutegiaren barne

Bihar inauguratuko duten erakusketa 2009rako erakusketen eta ekimenen egitarauaren baitan sartzen da. GKo Galeriarren arduradunek azaldu dutenez, biharko ka-



'XTRM' artista beasaindarren lan bat. HITZA

suan bezala, «Galerian erakusketa jarriko duten artistei kalean ere lantzeko artea eskatu diegu, modu horretan herritarrek ere artearen parte-hartzaile egiten ditugu, prozesu sortzailearen parte-hartzaile, hain zuzen, bera baita obra bizi eta sufritzen».

Halaber, Gazteria sailaren laguntza «erabatekoa» dela horrela-ko ekimenetan adierazi dute. «Oso garrantzitsua da, modu horretan, artista gazteen lanak gazteengana gerturatzea eta hauek ezagutzea lortzen da, eta baita, gainerako he-rritarrei ere».

Ez konformista izatearen emaitza

'XTRM' artista beasaindarren eskutik, beraz, pintura zuzenean ikusi ahalko da, bihar arratsaldean, Zerkausion. Beste askoren moduan, paperean eginiko marrazkiak kaleko paretetetan koloretzatuz hasi zen margotzen. Teknika berriak probatzeko kuriositateak eta ez konformista izatearen emaitza da gaur egun egiten duen lana. Duela urte bat arte bere lana ia osotasunean kaleko hormetan agertzen zuten, baina azken urte honetan kuadroekin zentratu da. Marraz-

ketari denboragehiago eskaini dio, bere estiloa asko eboluzionatuz eta aldi berean mezu eta ideia propioak pertsonaien bitartez isladatuz. Eboluzio hau aldi berean kaleatiko hormetan agertzen ari da, bai estudioko lana zein paretetako eskutik baitoaz.

Gainera, Artefatti taldearen partaide da, hau Torino-ko lagunekin osatu zuelarik eta noizbehinka elkartzen dira Italiako graffiti erakusketa ezberdinetan margotzeko. Bestalde, *Imanolone* artistarekin ordu luzeak elkarbanatzen ditu 'XTRM' artistak.

«Gure lana burutzeko jarraitu beharreko prozesua jendeak ezagutzea interesgarria da»

XABI ANUNZIBAI 'XTRM' Artista

Artea » Bihar, jendearen aurrean burutuko du lana; ideia «oso ona» dela dio, atzetik dagoen lana erakusteko modua baita.

INIGO TERRADILLOS

XTRM bezala sinatzen ditu bere lanak artista beasaindar honek. Izen artistiko horren atzean, ordea, Xabi Anunzibai (Beasain, 1985) dago. Urte ugari daramatza pinturan lanean, eta «oso egoki» ikusten du bihar egingo duten ekimena, hau da, jendaurrean euren lana erakustea.

Zer da bihar kalera aterako duzun lana?

Zerkausion jarriko naiz 16:00etatik aurrera, eta nire asmoa jendearekin nire lanek hasieratik bukatu arte jarraitzen duten prozesua erakustea izango da. Berez, prozesu guztia 3 ordutan erakustea ezinezkoa da, horregatik erdi prestaturiko



GOIERRIKO HITZA

lan bat emango dut. Horrela guztiek ikusi ahalko dute egurren nola manipulatu dudan, nola pintatu dudan eta abar. Ideia txiki bat hartuko dute nire lanaren, edo, oro har, artisten lanen inguruan.

Nondik dator jendearekin zure lana egiteko modua erakusteara?

GKo Galeriarri Garik esan zidan

agian atzetik zegoen lana erakusteko modukoa zela. Ideia ona iruditu zitzaidan, izan ere, bestela ez gara konturatzen koadro hauen atzean dagoen lanaz.

Zerkausion lan jendaurrean egin ostean, GKo Galerian izango da ikusgai beste hainbat lanekin batera.

Bai. 10 lan inguru jarriko ditut erakusketan. Asko jolasten dut fondorekin, eta koadroen arteko erlazioa ere kontuan hartzen dut. Modu horretan, erakusketa guztia bateratua da, unitate bat bezala, ez dira koadro edo lan independientek.

Nola izena du?

Ez goaz lanera. Egia esan, ez du esanahi berezirik. Une batean burura etortzen zaidanarekin jartzen diet izena erakusketei, ez dut denboragehiegi ematen horretaz pentsatzen. Gero, agian, koadroren batek erlazioa du izenarekin.

'XTRM' izenarekin sinatzen dituzure lanak. Nondik dator izen hori?

Duela 8-9 urte hasi nintzen margotzen. Izen honekin ekin nion lanari eta horrela jarraitzen dut. Izan ere, indarra hartuz joan zen, eta orain identifikatu egiten nau. Gainera, izena aldatzen badut, orain arte egindako lana desagertzea bezala izango litzateke nolabait.

Laburrak

Ibarran ura ez da edangarria oraindik

IBARRA » Ibarrako Udaletik adierazi dutenez, Ibarran udal sareko ura ez da edangarria oraindik. Beraz, janaria prestatzeko erabili ahal izango da soilik, 10 minutuz lehenago irakiten edukitzen bada, edota ur litro bakoitzeko lejia tanta bat bota eta erabili aurretik 30 minutu igarotzen uzten bada.

Amarozko loteriaren itzulketaren hilaren 14ra arte

TOLOSA » Amarozko loteria partizipazioen itzulketaren 14ra arte kobratu ahal izango dela partizipazioa erositako establezimenduan bertan jakinarazi dute. Egun horretatik aurrera, itzulketak kobratu ahal izango da astelehenetan, martxoaren 22ra arte, Amarozko Auzo Elkartearen lokaletan (Medikuaren kontsulta ondoan), 18:30etik 19:30ak arte.

Inauterietako karroza eta konpartsetan izen-ematea

TOLOSA » Karroza eta konpartsetan izena eman daiteke Kultur Etxean, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

T Telefonoak

Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbol: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

lurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Zahartzaro Duinaren aldeko plataformak kafetegi integratuaren aldeko apustua egiten du. Irudian, Gerontologiko zaharreko tabernan. HITZA

«Kafetegi integratuaren aldeko apustua egiten dugu gerontologiko berrian»

Tolosa » Eguno planoaren arabera, kafetegia ez da egoitzaren barruan egongo eta aiton-amonak kalera atera beharko direla diote.

ERREDAKZIOA

Zahartzaro Duinaren aldeko plataformak prentsaurrekoa eskaini zuen herenegun. Bertan, gerontologiko berriaren kafetegia integratuaren aldeko apustua egin zuten, hau da, kafetegia gerontologikoaren barruan egotea, eta ez ondoko eraikinean. «Eguno planoetan bezala egingo balitz, aiton-amonak erresidentziatik ateratzera behartuta daude, ez baitago konexiorik kafetegiaren eta egoitzaren artean».

Udalekin Ongizateko zinegotziarekin duela 10 hilabete bilera egin zuten Zahartzaro Duinaren aldeko plataformak eta han, plataformak proposatutako kafetegiaren kokapenaz hitz egin zuten, honen beharraz. Izan ere, Euskal Herri plazako Gerontologiko publikoaren defendatzaileen beste arrazoietako bat, «bertan bizi ziren aiton-amonen eta herritarren arte-

ko harremanak errazteko zeukan berezitasun bat taberna zeukalako zen».

Duela gutxi, ongizatekoen bilera bat egin zuten baina ez zituzten plataformakoak gonbidatu: hala ere, azaldu ziren bertan, baina

Plataformak, egoitzan zerbitzu ahalik eta onena emateko aldaketak egin daitezkeela dio

«ezer berririk ez zutela adierazi ziguten. Beraz, kafetegia honen arabera ez dute egingo gerontologikoaren barruan».

Oraindik, eraikitzen ari diren gerontologiko berriari, eskainiko duen zerbitzua «ahalik eta onena» izan dadin bermatzeko, «ezinbestekoak diren aldaketak egiteko garaiz gabiltza». Kafetegia ez badago erresidentziaren barruan, erresidentziako kafetegira joan nahi izanez gero, eraikinetik ateratzera behartuta egongo dira. «Kontuan hartu behar da hauen adina, izan ditzaketen oztupoak, eguraldia... Herritarrekin eta gizartearen integratu baina, baztertu egingo ditu».

E/le hizkiaren itxura dauka erai-

kin osoak: alde batean egoitza egongo da eta bestean etxebizitza tutelatuak. Azken honen azpian gerontologikoaren kafetegia egongo litzateke. Horrela, erresidentzian daudenak behartuta daude eraikinetik ateratzera bertara joateko, ez baitago barrutik konexiorik ez inongo loturarik. «Egoitzaren den kafetegia ez dago bertan: honek ez du balio gure helduak sozializatzeko, erresidentziatik ez ateratzeko baizik».

Kafetegia harremanetarako

«Zailtasun gehienak dituztenei oztupoak gutxitzeko sentsibilitatea zabaltzen hasi den garaian», eta dagoeneko eginda dauden eraikinetan oztupo arkitetonikoak saihesteko berreraikitzeak «bestirik egiten ez direnean, harrizkeoa da berria egin behar den eraikin batean hau kontuan hartu ez izana. Pertsona eredu jakin eta zehatz bati zuzendutako baliabide bat izango denean batez ere»: dagoeneko «bere etxeetan bakarrik bizi ezin diren aiton-amonak».

Euskal Herria plazako gerontologikoa itxi zuten bertan zeuden pertsonak Iurramendira eta San Kosme eta San Damianera

eramane zituzten. «Haiek Euskal Herria plazako giroa eta beste herritarrekin harremana izateko ematen zuten aukeraren falta somatzen zuten. Hein handi batean kafetegiak ezinbesteko papera betetzen zuten». Oraindik ere, ba omen da Iurremenditik Euskal Herria plazako zentrorra zerbait hartzea joaten den jendea.

«Kafetegira kaleko jendea sar daiteke eta aiton-amonak horiekin hitz egiteko eta egoteko aukera izan dezakete, honela afektibotasuna eta gertutasuna izanik». Baina horretarako adinduei erraztu egin behar zaie bidea.

«Integral baino, integratua»

«Jokin Bildarratz Tolosako alkatetik erabili zuen kontzeptuetako bat gerontologiko berriari buruz hitz egitean, zera izan zen: zentroa integrala izango zela. Integraltzat ulertzen duena egoitza, eguneko zentroa eta etxebizitza tutelatuak elkarrekin egotea da, baina» jarraitu zuten Zahartzaro Duinaren aldeko plataformakoek, «eraikin hauek ez daude elkarren artean komunikatuta». Izan ere, kalera atera behar da batera ala bestera joateko.

Gaur, AHT proiektuaren kontra dauden Udalekin bilera izango da

Alegia » AHT Gelditu! Elkarlanak deituta, Kultur Etxean 19:30ean izango da eta kaltetuak ere egongo dira.

ERREDAKZIOA

Gaur 19:30ean, «AHT proiektuaren ondorioz kaltetuak izango diren» eta proiektuaren aurka dauden Udalekin Alegiako Kultur Etxean bilera bat izango da, AHT Gelditu! elkarlanak deituta.

Izan ere, lurren desjabetza prozesua aurrera doa eta «lurjabeen iritzia ez diote kasurik egiten», salatu zuen AHT Gelditu! Elkarlanak. Hori dela eta, prozesuari kontra egiteko, kaltedunekin eta Udalekin talde bat osatu dutela argitu zuten. Alegiako bilera joateko deia luzatu zuten.

Laburrak

Intxurre etzi, Kostkas-Miren Bihotzaren kontra

ALEGIA » Etzi, Intxurreko lurraldeko futbol jokalariek etxean jokatu dute, Alegian, beraz, asteburuko partida. Kasu honetan, Kostkas-Miren Bihotzaren kontra izango da, 15:30ean hasita. Intxurre oraintxe bosgarren postuan dago sailkapen nagusian.

Altzarien berreskurapena eta dekorazio ikastaroa

ALEGIA » Alegian, Kutxa Aulak-en bidez, altzarien berreskurapena eta dekorazioa ikastaroan izena emateko aukera dago oraindik. Momentuz 3 lagunek eman dute izena baina kurtsoa aurrera eramateko hamarrekotako taldea behar da. Ikastaroa ostiraletan izango litzateke, 15:00etatik 17:00etara. Bestetik, Pilates 1.mailako ikastaroari hasiera eman diete. Asteartetan elkartzen dira 18:00etatik 19:30era. Informazio gehiagorako, Alegiako Kultur Etxera dei daiteke.

H Urteurrena

Oharra

I. urteurrena

**KOLDO
ALTUNA AZURMENDI**

Haren aldeko elizkizuna igandean, otsailaren 8an, izango da Orendaingo elizan 12:30ean.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Tolosan bazter askotan entzun ahal izan ziren atzokoan Agate Deunaren koplak, irudian Orfeoieko hainbat kide. R. CALVO



Villabonako Fleming Ikastetxeko haurrak ere atera ziren kalera. HITZA



Ikaztegiatan emakume talde bat atera ohi da urtero Agate Deunari. N. URBIZU



Ibarran Uzturpe ikastolako ikasleak atera ziren Agate Deunaren bezperan, plazan bildu eta herrian ibili ziren. R. CALVO



Leitzan umeak goizean eta kalez jantzita ateratzen dira urtero. A. IMAZ

Eskualdeko etxeak kantuz pozten

Agate Deuna » Askok izan ziren atzo kantari atera zirenak gure eskualdean. Ikastetxeetako haurrak atera ziren lehengo eta helduak gero, iluntzean.

ERREDAKZIOA

Agate Deunaren eguna da gaurkoa eta nola ez, atzokoan, bezperan, kantari ospatu zen Euskal Herri osoan, baita gure eskualdean ere. Artzai-andrez jantzita, makilak eskuan, ia bazter guztietan entzun ahal izan zen Agate Deunaren bezperako koplak ezaguna: «Santa Ageda bezpera degu/Euskal Herriko eguna/etxe guztiak kantuz

pozteko/aukeratu deguna/Santa maiteagaur hartu degu/gure bideko laguna/Haren laguntzaz bete gentzake/egun hontako jarduna».

Bestelako ospakizuna Leitzan
Hori bai Leitzan beste modu batean ospatu ohi dute; haurrak goizean atera ziren, baina ez artzai-andrez, kaleko jantziekin baizik. Nafarroako herri honetan gainera, ez

omen dute makila inoiz ateratzen eta kanta ere beste bat da: «Agiragirando/aqui estamos cuatro/cantaremos dos/una limosnita/por amor de dios/gaur egun ona/bihar pazkoa/Jesus jaio da ta/gure gozoa/agira agira/kukurruku/oilarrak ontzik hautsi ttu/afaltzeko diruebeau/etxe hontan oilobi/betek beste dirudi/etxe hontako etxeko-andrek/amabirjina dirudi».

Modu batera edo bestera kontua da asko izan zirela atzokoan kantari eta eskean atera zirenak, haurrak ikastetxeekin atera ziren lehenik eta beranduago, iluntzean, atera ziren elkarte eta koru desberdine-

tako helduak kantatzera. Batzuk ahotssoilez egin zioen kantu Agate Deunari edari, trikitiaren eta panderoaren laguntzaz beste batzuk.

Egia da Agate Deunaren bezperaren ospakizunak ez duela garai batekoarekin zerikusirik, baina berezkoa duen jatorri paganoa ere

berreskuratu duela esan daiteke. Denek dakite zein izan zen Agate Deuna, Sizilian torturatutako martiria, baina ohitura kristauak ahaztu eta egun negua baztertu eta udaberriari ongietorri goiztiarra emateko eguna izan zen, batez ere, atzokoa.

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA
IKAS KOMUNITATEA
PEDRO M^a OTAÑO HERRI ESKOLA
Pagamuño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - **ZIZURKIL**
Posta elektronikoa: 012041aa@hezkuntza.net

Harizpek bidaia antolatu du Kantabria aldera

ERREDAKZIOA

Harizpe jubilatua eta pentsiodunen elkarteak irteera antolatu du hilaren 17rako. Queveda eta Santilla del Mar bisitatuko dituzte; 07:30ean abiatuko dira eta 18:30ak aldera aurreikusi dute buelta.

Interesatuak txartelak erosi behar harko dituzte, 12 eurotan, otsailaren 12a baino lehen (aurrez plazak beteko ez balira). Txartela erosterrako garaian bazkide txartel egu-

neratua aurkeztu behar dela jakinarazi dute elkartetik.

Santa Klaratik abiatuko dira eta Quevedan gosalduko dute, eta Santillana del Mar herrira joango dira. Ondoren, bazkari ederra izango dute. Tartean, dantzaldia, Los Jimmys-en emanaldia, *Camino del Rocío* erromeria... izango dira.

40 lagunen kopurura heltzen ez badira bidaia bertan behera utziko dute.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipintza baserria - Santio Zaharra

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrerara Ergobiatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserria, Martutene pasealekua, 139

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urnieta
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Osiñaga auzoa

Urdaira Tel.: 943 180 119 Aginaga-Usurbil
Urdaira baserria

Otatza Tel.: 943 801 757 Zerain
Otatza baserria

Urbirtarte Tel.: 943 180 119 Ataun
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zerain
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegisagardotegia.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta
Iturrioz baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Aduna
Garagartza baserria www.rzabala.com

Aburuza Tel.: 943 692 452 Aduna
Goiburu auzoa, Olatza etxea

Sarasola Tel.: 943 690 283 Asteasu
Bebailara auzoa

Zalbide Tel.: 943 652 176 Abaltzisketa
Zalbide baserria

Eguzkitza Tel.: 660 654 317 Tolosa
Usabal auzoa, 25

Erreka Tel.: 948 510 625 Leitza
Erreka auzoa

DIEZ Autobusak

- Autobusak eta autobusaren zerbitzu bereak
- Autobusaren zerbitzu bereak
- Autobusaren zerbitzu bereak

Mundak kalea, 34 / Tel.: 943 26 84 16 / Fax: 943 27 11 27 / 20013 DONOSTIA

Puntu kontakturik: zabalara@diezautobusak.com



Handitan antzezlanaren une bat; hiru aktore ariko dira taula gainean. HITZA

Glu-Glu taldeak 'Handitan' antzezlanaren taularatuko du igandean, Gurea aretoan

Villabona » 3 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago Aizpea Goenaga zuzendariaren lana.

ERREDAKZIOA

Glu-Glu taldeak *Handitan* lana taularatuko du igandean, hilaren 8an, Gurea aretoan, 17:00etatik aurrera. 3 eta 10 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago antzezlanaren eta sarrerak 4 euro eta erdi balio ditu. Jolas modura planteatuta dago neska-mutil eta familiari zuzenduriko antzerki lan hau eta «oso gomendagarria» da guztientzat.

Villabonako Udalak dei egiten diete etxeko txikienei antzerki emanaldietara joan daitezten. Hala, apustu berezia egin du eta aseturu berean ez dituzte zine eta antzerki emanaldiak eskainiko. Asteburu honetan, esaterako, antzerkia soilik izango da aukera, eta alderantziz. Helburua, emanaldietara jende gehiago joatea da, aurrekoek ez baitute nahi adina arrakasta izan.

«Zer izan nahi duzu handitan?» abiapuntutzat

Umorea, musika, kantu, zoramen, eta jolasean oinarrituta dago Aizpea Goenagaren zuzendari eta egilearen lana. Batez ere, neska mutilen hain gogoko duten jokoan: handi-

tan zer izango direnaren jokoan, eta helduen mundua beren ikuspegitik jorratearen jokoan. Horregatik, «Zer izan nahi duzu handitan?» galderarekin ekingo diote lanari.

Lanean, hiru aktore

Libe Aranburu Oñederra, Larraitz Garcia eta Urtza Zuazo ariko dira taula gainean. Hiru aktore hauek bakoitza bere izaera zoro-zoroarekin musikaz eta kantuaz gain, jantzi koloretsu eta dibertigarriekin aterako dira eta haxe izango da hurrek lehendabizi ikusiko dutena.

Eta hauen eskutik ordubeteko saioan murgilduko dira hauek, bakoitzak zer izan nahi duen jakiten, ikusten, asmatzen edo irudikatzen duten bitartean. Hasi, eta astronauta izan nahitik, suhiltzaile izatera pasako dira antzezleak. Mediku, ikertzaile, albaitari, kontalari, edo zirkuko artista ere izan nahiko dute.

Bernardo, odol beroko pertsonaia, astronauta eta baita suhiltzaile edo mediku ere izan nahiko du. Maitanek berriz, kontalari, «baina ez ardi kontaketa egiteko, ez!», ipuinak kontatzeko baizik. Eta Katixa gajoa, handitan zer izango den aukeratu ezinik dabil, ba omen daki baina ahaztu egin omen zaio.

Gora behera hauen guztien ondoren, Katixak, azkenean, gogoratu du zein den handitarako nahi

» FITXA

- **Zer.** *Handitan* antzezlanaren.
- **Non.** Gurea aretoan.
- **Noiz.** Hilaren 8an, igandean, 17:00etan.
- **Norentzat.** 3 eta 10 urte bitarteko haurrentzat.
- **Prezioa.** 4 euro eta erdi.
- **Iraupena.** Ordubete.
- **Zuzendaria.** Aizpea Goenaga.
- **Aktoreak.** Libe Aranburu Oñederra, Larraitz Garcia eta Urtza Zuazo.
- **Sinopsia.** Bernardo, Maitane eta Katixa handitan zer izan nahi duten ariko dira: suhiltzaile, astronauta, mediku, ipuin kontalari... Katixa gaixoa, aldez, ez du gogoratzen zer egingo nahi duen.

duen lanbidea: kantari eta dantzaria. Eta honela amaituko da saioa festa giroan.

Hiruak, adiskideak

Hiru lagun hauek, hain ezberdina izanik, badute lotura hautsi ezin bat: adiskide izatearena. Eta balore honetan oinarrituta, garatu dute pailazo koloretsu zoro hauek beren portaera. Ez dira ohiko pailazo klasikoak, inolaz ere, batez ere balore eta portaeretan. Baina pailazo zoro batzuk direnik ezin daiteke uka.

Hiru kide hauen arteko jolasa da istorio honen ardatza, baina baita bertsoak, musika, abestiak, eta ipuinak ere ba dute euren txokoa.

Udal ordezkariak aho batez onartu dute behin-behineko aurrekontua

Leitza » Ohiko udalbatzaren bilkuran, ilbeltzaren 29an, onartu zituzten udal hautetsiek 2009rako aurrekontuak.

ASIERIMAZ

Leitzako Udalbatzak aho batez onartu zituen 2009. urterako aurrekontuak. Ohiko udal bilkura ilbeltzaren 29an burutu zen, eta bertan EAren, PPren eta UPNren ordezkariekin batera hautetsi independentistek bozkatu zuten. Azken hauek aurkeztutako behin-behineko aurrekontuek alderdi ezberdinetako ordezkarien babesa edukitu zuten.

3.674.903 euro

Behin-behineko aurrekontua 2009ko diru-sarrerak eta gastuek osatzen dute. Bi atal hauen aurreikuspenek zenbaki bera eskaintzen dute; 3.674.903 euro hain zuzen ere.

Diru-sarreragehien *Tokiko entitateen administrazio orokorreko transferentziek* biltzen dute. Honen barnean, *Hazienda Lokaleko*



Iragan urtean burutu zen udalbatza osoaren ohiko bilkura, alderdien herriko ordezkariekin. A. IMAZ

Fondoa gailentzen da, 650.000 eurorekin.

Udalak aurrean bilduko duen diru gastuak ordaintzeko izanen da. Gastuen atalaren barnean, *Inbertsio errealek* bideratuko da diru gehien: 1.312.610 euro. Honen baitan, biribilguneko obrak, Patxi

Arrazolako zoladura, eskolako hobeak, zabor biltzetarako ibilgailua, UE-32ko urbanizazioa eta mendi-aldaketak eta garbiketarako azpimarratu behar dira.

Gastuen barnean, *Ondasun arruntak eta zerbitzu gastuak* atalak 1.027.136 euro bereganatuko

ditu. Atal honetan konponketak, mantenimendua, materialak etab. sartzen dira. Herriko Jaietara bideratzen den dirua ere hemen agertzen da. *San Tiburtzio Jai Nagusiak* hemen agertzen dira eta aurreikusitako den diru kopurua 75.000 eurokoa izanen da.

» AURREKONTUAK

DIRU-SARRERAK

A) Ohikoak edo arruntak

Zerga zuzenak	721.500 euro
Zeharkako zergak	116.853 euro
Tasak, prezio publikoak eta beste sarrerak	329.610 euro
Tokiko entitateen administrazio orokorreko transferentzia	1.162.890 euro
Ondare sarrerak eta herri aprobetxamendua	73.708 euro

B) Inbertsio sarrerak

Inbertsio errealen besterentzea	415.000 euro
Kapital transferentziak eta kapital gastuak	855.342 euro
Finantza aktiboak	0 euro
Finantza pasiboak	0 euro
Guztira	3.674.903 euro

GASTUAK

A) Ohikoak edo arruntak

Langileria gastuak	708.030 euro
Ondasun arruntak eta zerbitzu gastuak	1.027.136 euro
Finantza gastuak	132.300 euro
Transferentzia arruntak	265.420 euro

B) Inbertsio irteerak

Inbertsio errealen	1.312.610 euro
Kapital transferentziak	0 euro
Finantza aktiboak	0 euro
Finantza pasiboak	229.407 euro
Guztira	3.674.903 euro

Zabaleta, ogasuna, euskara, Sanz eta Leitzako kuartela

Politika » Patxi Zabaletak UPNren «errespetu demokratiko falta» salatu du foru ogasunaren jokamoldea medio.

ERREDAKZIOA

Nafarroako Legebiltzarrean Nafarroa Bai alderdiko bozeramaileak, Patxi Zabaleta leitzarrak, Nafarroako arartekoarekin bat egin zuen iragan astelehenean kazetarien galderari erantzuten ari zela.

Leitzako kuartela eta euskara

Zabaletaren esanetan «errespetu demokratiko falta da» errenta aitortu behar, herritarrek ekin zuten zuzenaren bideratzen duten diruarekin Foru Ogasuna gelditzea.

Arartekoak salatu bezala, «UPNren gestioaren ardura falta» aipatu zuen NaBairen bozeramaileak. Arartekoaren salaketa hau «oso interesgarria» eta «zuzendu beharrekoa» dela azaldu zuen Patxi Zabaletak: «Gobernuak beste hainbat gauzetan egiten duen gauza berbera da. Edozein gai dela medio, ogasun teknika justifikazina da, errespetu demokratikorik



Nafarroa Bai alderdiko hautetsia, Patxi Zabaleta. LANDERFERNANDEZ ARROYO

gabea». Zabaletaren esanetan, jokamolde honen adibide bat Leitzan aurkitzen da: «Leitzako Guardia Zibilaren etxea herritar abertzale batek, herentzian, Nafarroako Gobernuaren esku utzi zuen; euskara sustatzeko. Exeku-

tiboak Gobernu Zibilaren esku utzi zuen. Sanzi etxe honetako errentarekin zer egiten den galdetu nionean, Foru Ogasunera zihola esan zidan eta Foru Ogasunetik euskara aintzakotzat hartzen dela».

Bi leitzarrek elkarren aurka jokatu dute otsailaren 8an

Pilota » Oinatz Bengoetxeak Abel Barriolaren aurka jokatu du Binakako Txapelketaren seigarren jardunaldian.

A. IMAZ

Eskuz Binakako Txapelketaren finalerdia gero eta gertuago aurkitzen dira. Abel Barriola eta Xabier Gonzalez hiru garaipen eta bi porrotekin aurkitzen baldin badira, Oinatz Bengoetxea eta Ruben

Beloki bi garaipen eta hiru porrotekin daude.

Asteburu honetan Txapelketaren seigarren jardunaldia jokatu da eta bi leitzarrek berriro elkarren aurka ariko dira. Bigarren jardunaldian jokatu zuten partiduan, 22-16 gailendu ziren Barriola eta Gonzalez.

Igandean Eibarren

Bi leitzarrek otsailaren 8an, igandean, jokatu dute Eibarko Astelena pilotalekuan. Partida telebistan ikusteko aukera egonen da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldek beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Alegia.** AHTren kaltetuen eta proiektuaren aurka dauden kontrako udalekin izango da bilera Alegiako Kultur Etxean.
- **Irura.** Kaldereroetarako entsegu egingo dute gaur Irurako kulturunean 19:00etatik aurrera, Irurako Udalak eta Loatzo Musika eskolak antolatuta. Herritar guztiei parte hartzea gonbidatzen zaie.
- **Tolosa.** Euskararen Astea prestatzeko bilera 09:00etan Kultur Etxean.
- **Tolosa.** Tolosaldea Igeri Kirol Taldearen urteko asanblada Usabal kiroldegian 19:15ean lehen deialdian eta 19:30ean bigarrenan.
- **Tolosa.** Inauteri kontzertua prestatzeko, deialdi berezia egiten diete Tolosako Musika Bandako kide ohiei, hilaren 10 eta 12ko, astearte eta osteguna, entsegetara joateko, 20:15ean.
- **Tolosa.** Inauterietarako karroza

- eta konpartsetan izena eman daiteke Kultur Etxen 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Izena eman daiteke otsailaren 11ra arte.
- **Tolosa.** Bihar. GKO Galeriak antolatuta, XTRM artista goierritarrak murala egingo du zuzenean Zerkausian.
- **Tolosa.** Harizpe jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak Quevedo-Santillana del Mar bidaia antolatuta datorren otsailaren 17rako, astartarekin. Egund bateko irteera izango da; prezioa: 12 eurokoa izango da. Izen-ematea, otsailaren 12ra arte edo plazak bete arte.
- **Ibarra.** Bihar, Uzturpe ikastolak Emeterio Arrese plazan egindako eraikin berria inauguratuko dute 19:00etan, Uzturpe ikastolaren Kultur Astearen baitan.

Hitzaldia

- **Ibarra.** Askagintzak nerabeek dituzten familiei zuzendutako Dro-

gomenpeketasunaren prebentzioa familian eta ikastetxean hitzaldia eskainiko du Benito Izagirre kultur etxean 18:00etan, Uzturpe ikastolak antolatuta.

Kirola

- **Ibarra.** Igandean, hilaren 8an, mendi irteera antolatuta dute, Zeiraingo meategitara Uzturpe ikastolaren Kultur Astearen baitan.
- **Asteasu.** Otsailaren 7 eta 8rako, asteburu honetan eski irteera antolatuta du Sagain mendi taldeak Luz Ardiden-era. Informazio gehiago, www.sagain.org helbidean.
- **Villabona.** Urmeen eski irteera (Somport) antolatuta du Aizkardi mendi elkarteak hilaren 14 eta 15erako. Informazioa, elkartearen ostegunetan 20:00etatik 22:00etara (649 717182).
- **Villabona.** Aizkardi mendi elkarteak Sunbilla - Aizkolegi (841 metro) - Legate (870 metro) - Leka-

- roz mendi ibilaldia antolatuta du hilaren 8rako. Informazioa eta izen-ematea, elkartearen ostegunetan 20:00etatik 22:00etara (649 717182) edo aizkardi@aizkardi.com helbide elektronikoan.
- **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak otsailaren 8rako irteera bat antolatuta du Balmasedatik San Juan de Berbikezera, Trasmosos (698 m.) eta I Iso (564 m.) mendiak igoz. Iraupena bost ordu eta erdi-koa da. Izen-emateak elkartearen, 943 65 27 89 edo alpinouzturre@hotmail.com helbidean.

Zinema

- **Leitza.** Bihar, *Las horas del verano* filma emango dute zinemaren 22:30ean eta igandean 19:30ean.
- **Tolosa.** *Leonera* filma emango dute zine-forumean, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean bigarren saioa.

- **Tolosa.** *My blueberry nights* filma izango da ikusgai Leidor aretoan asteburu honetan: bihar 22:30ean, igandean 22:00etan eta astelehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean. Igandean, *Perez sagutxo* 2 filma emango dute 17:00etan.

Erakusketak

- **Tolosa.** Juan Jose Agirre tolosarren margolen erakusketa ikusgai dago, Aranburu Jauregian aste gutzian zehar, ohiko ordutegian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Ama-ya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Irurako Ikastola

• (2-12 URTE)
• Lehen Hezkuntza

'HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN'

San Migel, 5 • 20271 IRURRA • Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net

OKINDEGI / KAFETEGIEN SEKTOREAN LIDERRA DEN ENPRESAK NEGOZIO BERRITZAILE ETA KONTRASTATUAREKIN, ERRENTAGARRITASUN HANDIAREKIN LEITZAN LAISTER EGINGO DUEN IREKIERARAKO HARREMANETAN JARRI NAHI DU:

- BEREZKO NEGOZIOA
- KUDEATU NAHI DUTEN PERTSONEKIN
- DENDAKO ARDURADUNEKIN
- SALTZAILEEKIN

Interesatuak harremanetarako gutuna eta CVa bidali ondoko helbidera: posta kutxa 54 - 20115. Astigarraga



Otsailak 14

Inauterietarako festa handia
Brasilgo **inauterietako** ikuskizuna
eta SanValentin **beroa**

Striptease mutil/neska goizeko 4:00etatik aurrera
Itxierako ordutegi berezia

Otsailak 21

DISKOTEKA saioa

Otsailak 28

SU TA GAREN kontzertua

www.salamuxu.com

Sala muxu • Albisualdea industrialdea 31 zkia. • LEKUNBERRI